

Eraikinetako instalazio termikoetarako lanbide-txartela lortzea

Txartela bide hauetako batetik lortzen ahalko da:

a) Titulurik gabe:

- 1) [Pertsonak egiaztatze](https://www.enac.es/web/enac/entidades-acreditadas/buscador-de-acreditados)ko erakunde batek emandako ziurtagiria, 2200/1995 Errege Dekretuaren arabera. Webgune honetan kontsulta ditzakezu baimendutako erakundeak: <https://www.enac.es/web/enac/entidades-acreditadas/buscador-de-acreditados>
- 2) Enpresa instalatzaile edo mantentzaile batean teknikari gisa gutxienez **3 urteko lan-esperientzia** egiaztatzea, Nafarroan aintzatetsitako entitate batek emandako **ikastaro** teoriko-praktiko bat egitea Erregelamenduaren 3. gehigarriaren 3.1 eta 3.2 ataletan adierazitako iraupenarekin eta edukiarekin, eta [azterketa teoriko-praktiko bat](#) gainditzea autonomia-erkidegoaren aurrean. (Nafarroan urtean bi deialdi egiten dira, eta izena emateko epeak martxoaren 1etik 15era eta irailaren 1etik 15era bitartekoak dira).

Eraikinetako instalazio termikoen arloko prestakuntza entitateak:

Entitatea	Herria	Helbidea	Telefona	Helbide elektronikoa
SUMINISTROS BEROTZA, S.L.	Ezkizotz	Noain Ezkizotz industriagunea C/S 1	948317600	berotza@berotza.com
ANAFONCA (AIN)	Cordovilla	Iruñeko errep., 1 AIN eraikina	948421160	anafonca@anafonca.es
CENIFER	Imarkoain	Aduana, z.g.	848424415	cadinsan@navarra.es
Politécnico BHI, Lizarra	Lizarra	San Pol 8.	948550412	jmoler@gir.es
Virgen del Camino IBP	Iruña	Imarkoain 1	848430700	CIP@virgendelcamino.com
STK fundazioa	Iruña	Landabengo industriagunea C/A	948189018	majimenez@saltoki.es
FLC NAVARRA	Uharte	Areta industrialdea, Bideberri kalea, 56	948382348	msilvero@fundacionlaboral.org

- 3) Laneko esperientziaren bidez eskuratutako gaitasun profesionala, 1224-2009 Errege Dekretuaren arabera, informazio orrirako lotura: <https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/Acreditacion-de-la-competencia-profesional1>

b) Zuzenean, eskaera bidez, honako titulazio hauek dituzten pertsonak:

- 1) Lanbide Heziketako ofizialaren titulua edo Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko profesionaltasun-ziurtagiria (ikus atzealdean).
- 2) Unibertsitate-titulua (kopia konpultsatua), 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduaren xede diren gaiak biltzen dituen ikasketa-plana duena.

Txartela Internet bidez izapidetuko da, izapidetaren orrian: '[industria-segurtasunaren arloko profesionalen txartelak](#)', edo, bestela, Nafarroako Gobernuaren [erregistro eta arreta bulegoetan](#) ere aurkez dezakezu <https://www.navarra.es/eu/herritarren-arreta/bulegoetako-arreta>

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskabidea.

- 15 euroko tasa ordaintzeko gutuna, txartela ordaintzeagatik.
 - Kasu bakoitzean baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Ez da beharrezkoa txartela berritzea. Instalatzaileak **gaitutako enpresa instalatzaile baten barruan garatu beharko du bere jarduerak.**

Eraikinetako instalazio termikoen txartela zuzenean lortzeko lanbide-heziketako tituluen eta profesionaltasun-ziurtagirien zerrenda

Profesionaltasun ziurtagiria

- Eguzki-instalazio termikoen antolamendua eta proiektuak (1967/2008 Errege Dekretua, azaroaren 28koa) (ENAE0308)

Lanbide Heziketa

- LH2 Eguzki-energiaren aprobetxamenduko teknikari espezialista
- LH2 Berotzeko, hozteko eta aire girotuko teknikari espezialista
- LH2 Iturgintzako teknikari espezialista (707/1976 D.)
- LH2 Hotz industrialeko teknikari espezialista
- LH2 Instalazioetako teknikari espezialista
- LH2 Eguzki-energiako instalazioetako teknikari espezialista
- LH2 Hozteko eta girotzeko instalazioetako teknikari espezialista
- LH2 Eguzki-energia mantentzeko eta girotzeko teknikari espezialista
- ELH hozteko, girotzeko eta beroa sortzeko instalazioak muntatu eta mantentzeko teknikaria (2046/1995 ED)
- GLH Fluido-, termika- eta mantentze-instalazioen proiektuak garatzeko goi-mailako teknikaria (2042/1995 ED)
- GLH Instalazio termiko eta fluidodunen proiektuak garatzeko goi-mailako teknikaria (219/2008 ED)
- GLH Energia Eraginkortasuneko eta Eguzki Energia termikoko goi-mailako teknikaria (1177/2008 ED)
- GLH Instalazio termiko eta fluidodunen mantentze-lanetako goi-mailako teknikaria (220/2008 ED)
- GLH Eraikinetako instalazioen mantentze eta muntaketako eta prozesuko goi-mailako teknikaria (2044/1995 ED)
- 3. mailako lanbide-moduluak Hozteko eta girotzeko instalazioak (Elektrizitatea eta elektronika adarra)
- 3. mailako lanbide-moduluak Prozesuko instalazio termiko osagarrien (Elektrizitatea eta elektronika adarra)
- 3. mailako lanbide-moduluak Zerbitzu-instalazioak eta instalazio osagarriak mantentzea (Elektrizitatea eta elektronika adarra)

Bi titulazioen konbinazioa

Profesionaltasun ziurtagiriak

- Bero-instalazioen proiektuak garatzea (IMAR0508) + girotzeko eta aireztatzeko/erauzteko instalazioen proiektuak garatzea (IMAR0109)
- Aire girotzeko eta aireztatzeko instalazioak muntatzea eta mantentzea (IMAR0208) + Bero-instalazioak muntatzea eta mantentzea (IMAR0408)
- Hozteko instalazioen muntaketa planifikatzea, kudeatzea eta mantentze eta gainbegiratze lanak egitea (IMAR0309) + Bero-instalazioen muntaketa planifikatzea, kudeatzea eta mantentze eta gainbegiratze lanak egitea (IMAR0509) edo bero-instalazioak muntatzea eta mantentzea (IMAR0408)
- Girotzeko eta aireztatzeko/erauzteko instalazioen muntaketa planifikatzea, kudeatzea eta mantentze eta gainbegiratze lanak egitea (IMAR0409) + Bero-instalazioen muntaketa planifikatzea, kudeatzea eta mantentze eta gainbegiratze lanak egitea (IMAR0509)

Lanbide Heziketa

- Beroa sortzeko instalazioetako teknikaria (1792/2010 ED) + Hozteko eta girotzeko instalazioetako teknikaria (1793/2010 ED)